

ZENBAIT MAPA ETA AZALPENA ALGUNOS MAPAS CON INTERPRETACIONES

“COMADREJA / BELETTE”



Hiru eremu handi erakusten ditu mapa honek. Iparraldean *añiñer*, *anddeijer* deitzen da; hots, “andere polita”. Frantsesez ere “belette” hitza “beau”, “belle” adjektiboaren gainean eraikia da, euskaraz “eder” adjektiboaren gainean eraikia den moduan.

Bizkaieraz *ogigastai* deitzen da. Egia esan, aragoieraren eta gaztelaniaren eremu batzuetan “paniquesa” deitzen da; hain zuzen, segur aski aspaldi eta paganismoaren denboran, animalia horri egiten zitzaizkion opariengatik (ogia eta gazta).

Erdialdean, Gipuzkoan eta Nafarroan, *erbiñude* agertzen da. “Iñude” hitza dago oinarrian; hots, umeak sortzera laguntzen zuen emakumearen izendapena. Gaztelaniaz ere, “comadreja” deitutakoak lan hori egiten zuen.

Eibar inguruan bildutako *satandera* hitzak bi elementu ditu: *sat-* (*sagu*, *sator*, *sagarroi* hitzetan ageri dena) eta *andere*.

Anddeijer, *erbiñude* eta *ogigastai* ez dira erdaratik hartutako maileguak; euskarazko hitzez eginak dira, zalantzarik gabe. Baina esanahiaren aldetik, beste erdaretan bezala eraikiak dira: emaztea, hots emetasuna, ogia eta gazta, hots oparia aipatzen dituzte.

Ondoko beste hizkuntzetarik guztiz bereizi den euskarak zergatik ote dauka motibazio bera animalia honen izendapenak hautatzeko? Hizkuntza desberdin izanik ere, izendapenak asmatzeko motibazio bera ageri da. Europako kulturaren historiaren puntu garrantzitsua agerian uzten du mapa honek.

Este mapa nos enseña tres grandes áreas. En Iparralde se denomina *añiñer*, *anddeijer* “andere polita” (mujer bella). En el caso del francés la palabra “belette” también se construyó sobre el adjetivo “beau”, “belle”, al igual que en el caso del euskera que se ha construido sobre el adjetivo “eder”.

En vizcaíno se denomina *ogigastai*. Es cierto que en algunas zonas del aragonés y del castellano se utiliza la forma “paniquesa”, probablemente por las ofrendas que se le hacían a este animal en épocas del paganismo (pan y queso).


En la zona central, en Gipuzkoa y Navarra, aparece la forma *erbiñude*. Hay que decir que en la base de esta palabra encontramos “iñude”, nombre con el que se denominaba a las nodrizas. Las “comadreas” (denominadas así en castellano) también realizaban esa labor.

La palabra *satandera* recogida en la zona de Eibar se compone de dos elementos: *sat-* (que aparece en las formas *sagu*, *sator*, *sagarroi*) y *andere*.

Anddeijer, *erbiñude* y *ogigaztai* no son formas provenientes del castellano; sin duda, son formas construidas a partir de palabras del euskera. En cuanto al significado son construidas al igual que en las otras lenguas; hacen referencia a la mujer, al pan y al queso.

¿Por qué el euskera, siendo una lengua tan diferenciada de las de su alrededor, tiene la misma motivación que éstas a la hora de denominar este animal? Este mapa recoge un punto muy importante de la historia de la cultura de Europa.

“SÁBADO / SAMEDI”



Astegun bakoitzak izen bat baino gehiago dauka euskaraz. Mapa honek erakusten du lau forma nagusi erabiltzen direla “sábado / samedi” adierazteko.

Sapatu hebreeratik dator: “sabatth” hitzak “pausu” esan nahi du. *Sapatu* honek Bizkaia osoa baino gehiago estaltzen du Gipuzkoako erdia hartuz Nafarroako hegoaldeko mugaraino.

Hizkuntza askotan, astean egun batek duen ordena edo zenbakia agertzen ohi da bere izenean, ikus *astelehen*, *asteazken*, latinez “*secunda feria*”, “*tertia feria*”, portugesez “*segunda*” etab. Motibazio beraren arabera, galdera honetan *sapatu* erabiltzen ez den eremuetako beste hiru formak zenbaki baten edo ordena baten arabera eraikiak dira: *larunbat*, *ibiakoitz*, *neskenegün*.

Larunbat (*launbet*, *laanbat*) formak eremurik handiena dauka, Nafarroa osoa, Lapurdi osoa eta Gipuzkoako ekialdea hartzen baititu: ‘*lau*, *laur*’ zenbakia dauka lehen elementua, bigarrena ‘*bat*’ numeral delarik, non ez den denbora-neurria adierazten duen –*te* atzizkia gorde, Leizarragak erabilitako *laranbate* forma lekuko (ikus *as-te*, *ur-te*, *igan-te*, *huri-te*).

Ibiakoitz (*ebiakoitz*, *iakoitz*, *eriakoitz*...) Nafarroa Beherean bakarrik bildu da: honetan ere numerazio sistema kontuan hartu behar da *egun+bakoitz* moduan eraikia izan baita. Ohartarazteko da Gipuzkoan, Bergara eta Oñati inguruan; hots guti edo aski bizkaiera erabiltzen den Gipuzkoako zati batean, *eguakoitz*, *ibuakotz* ezaguna dela baina, eremu honetan, “viernes / vendredi” adierazten du.

Zuberoan bakarrik agertzen da *neskenegün* forma, segur aski *azken-egün* batetik eratorria eta ez *neska* hitzetik.

Los días de la semana reciben más de una denominación en euskera. Este mapa nos enseña que en euskera se utilizan cuatro formas diferentes para decir “sábado / samedi”.

Sapatu procede del hebreo: “sabbath” significa “paso”. *Sapatu* se extiende más allá del territorio vizcaíno ocupando la mitad de Gipuzkoa y extendiéndose hasta la frontera sur con Navarra.


En varias lenguas mediante los nombres de los días se hace referencia directa al orden que cada día ocupa dentro de la semana o al número: en euskera *astelehen*, *asteazken*; en latín “secunda feria”, “tertia feria”; en portugués “segunda” y etc. Siguiendo la misma motivación, en esta pregunta observaremos cómo en los casos que no se utiliza la forma *sapatu*, la denominación se basa en algún número o incluso en el orden: *larunbat*, *ibiakoitz*, *neskenegün*.

La forma *larunbat* (*launbet*, *laanbat*) es la que mayor área ocupa: se extiende por toda Navarra, por todo Lapurdi y por el este de Gipuzkoa. *Larunbat* se compone de dos elementos: el número cuatro “*lau*, *laur*” y “*bat*” elemento numeral que no ha mantenido el sufijo temporal *-te*. Como ejemplo de este sufijo encontraremos *laranbate*, forma utilizada por Leizarraga (ver también *as-te*, *ur-te*, *igan-te*, *euri-te*).

Aparece solo en la Baja Navarra la forma *ibiakoitz* (*ebikoitz*, *iakoitz*, *erikoitz*...). En este caso hay que volver a tener en cuenta el sistema de numeración, ya que es una forma creada de la siguiente manera: *egun* + *bakoitz*. Es de resaltar que en Gipuzkoa, concretamente en los alrededores de Bergara y Oñati, también conocen las denominaciones *eguakoitz* e *ibuakotz* pero hacen referencia a “viernes / vendredi”.

La forma *neskenegün* solo está presente en Zuberoa y es probable que proceda de *azken-egün* (último día) y no de la palabra *neska* (chica).

“SOMBRA / OMBRE”



Mapak bi eremu handi erakusten ditu: lehena bizkaierak hartzen du (Bizkaitik kanpo Legazpiraino). Bertan *geriza* edo *gerizpe* hitzak azaltzen dira, dagozkien aldakiekin. Bigarren eremuan, Gipuzkoatik Zuberoaraino, *itzal* (*itzel*) guztiz nagusi da. *Itzel* aldakiak, halaber, azpierrezu trinko bat erakusten du Nafarroako parte batean. J. Lakarraren arabera, *itzal* eta *itzuli* hitzetan agertzen den “*itz-*” lehenbiziko elementua eta “*atze*” elkarriz lotzekoak dira.

Alde batetik, *geriza* hitza ezaguna da bizkaieratik kanpo ere, baina beste esanahi batekin: “aterpe (haize edo euriarengatik)”, *axe eskutu*, “babes”, “anparo”, hala nola 08080 mapan agertzen baita Lapurdin eta Nafarroako herri askotan. Argi dago esanahi hori ez dela urrun “sombra / ombre” hitzaren esanahitik.

ikusten den bezala, zeinetan *patxaran*, *elorribeltz* edo *aranbeltz* erabiltzen baitira arbola izendatzeko.

Zuhaixka honek dituen ezaugarri batzuetan oinarritu dira izendapen motibazioak; fruitua iluna ematen du (*beltz*), ziztak badauzka (*elorri*, *arantza*), basa da (*basa*, *sasi*), ez da oso ona (*txarri*). Motibazio horiek hitz bakarrean metatu daitezke (*elorrantza*) eta metonimia gertatzen da; hots zuhaixka honen parte bat baizik ez dena (*elorri*, *arantz*) arbola osoa izendatzeko erabiltzen da.

Hain zuzen ere *elorri* eta *aran*, *arantza*, *arantze* bi eremu handitan agertzen dira. *Elorrribeltz* nagusi da Iparraldean, Gipuzkoako parte batean eta Nafarroako goi partean. Motibazio bereko *elorrribeltz* batzuk ere agertzen dira han-hemenka Bizkaian.

Arantzabeltz, *arantzabaltz*, *aranbeltz*, *okaranbaltz* agertzen dira nagusiki hegoaldean Gipuzkoan eta Bizkaian. Ohartarazteko da zizta den *arantza* eta fruituaren izena, *arana*, lotuak direla. Forma pleonastikoak agertzen dira *elorrantzaondo*, *elurrantzabeltz* formetan.

Arantzabeltz eta *elorrribeltz* hitzek *-beltz* elementua dute komunean. Motibazio berarengatik gaztelarazko “endrino/a” latinezko ATRINA-tik dator, hitz honek “beltzaran” esan nahi duelarik.

Ziztaduna izateaz gain, “basa” da zuhaixka. Hortik datoz *basa-* elementua daukaten formak, *aran* elementuaren aitzinean edo atzean: *basaahantze*, *adanbasati*, eta *paxaran*, *patxaranondo*, *basokaran*, *basaelorriondo*. *Patxaran* gehienik Nafarroan agertzen da. Motibazio bereko *sasi* elementua agertzen da Bizkaian: *sasiokaran*. Ohart **basaelorri* bezalako formarik ez dela bildu, elorria berez basa balitz bezala.

Basa izateak aditzera ematen du nolabait fruitua ez dela oso ona. Are gutxiago *txarriokaran* forma kontuan harturik. Aldiz, *baxakan*, *basomakatz* (zeinetan *makatz* “udarearen” izena baita), hitzek gogora ekartzen digute zuhaixka honetan beste arbola motarik txertatzen ahal dela.

Azkenik, *txinbillosasi* eta *okantximilloarbola*, *maldaan*, *txirriokeran*, *estraka* ere bildu dira.

Una de las denominaciones que en este mapa ocupa una pequeña área se ha hecho muy famosa gracias a otros motivos no relacionados con la lingüística: *patxaran*, nombre de la bebida alcohólica.

El mapa se merece dos menciones: Por una parte cabe decir que el euskera utiliza varias formas similares para nombrar la “ciruela / prune”: *okaran*, *aran*, *adan*, *arhan*, *aran*. Partiendo de la forma del latín CEROLA PRUNA, las lenguas que nos rodean han ido escogiendo o la primera parte (cast. “ciruela”) o la segunda (fr. “prune”).

Por otra parte, en castellano el árbol y su fruto se suelen diferenciar mediante la alternancia de las vocales *o/a* –“manzano / manzana”-, en francés mediante el sufijo *-ier* –“pomme / pommier”- y en euskera, en algunos casos mediante las marcas *-tze*, *-ondo* –*sagartze* / *sagarrondo*- y en otros casos directamente no se diferencia tal y como lo podemos comprobar en este mapa, donde los sustantivos *patxaran*, *elorrribeltz* y *aranbeltz* se utilizan tanto para nombrar árboles, como sus frutos.

En algunos casos las denominaciones de este arbusto se basan en ciertas cualidades que posee: que suele dar un fruto oscuro (*beltz*), que tenga espinas (*elorri*, *arantza*), que sea salvaje (*basa*, *sasi*), que no sea muy valorado (*txarri*). Se puede dar que varias de estas motivaciones se unan en una única denominación (*elorrantza*) y como consecuencia surja una metonimia; es decir, que una de las partes (*elorri*, *arantza*) se utilice para denominar todo el arbusto.

Los sustantivos *elorri*, *aran*, *arantza*, *arantze* hacen su aparición en dos áreas extensas. *Elorrribeltz* es el sustantivo más extendido en Iparralde, parte de Gipuzkoa y en la zona superior de Navarra. También encontraremos algunas respuestas (*elorrribeltz*) relacionadas con la misma motivación en ciertos puntos de

Bizkaia.

Arantzabeltz, arantzabaltz, aranbeltz, okaranbaltz están presentes al sur, en Gipuzkoa y en Bizkaia. Hay que remarcar que el sustantivo *arantza*, (utilizado en euskera para denominar “pincho”) y el nombre del fruto *aran* están relacionados. Encontraremos formas pleonásticas en los sustantivos *elorrantzaondo* y *elurrantzabeltz*.

Las palabras *arantzabeltz* y *elorribeltz* comparten el elemento *-beltz* (negro). Por esta misma motivación la forma castellana “endrino/a” proviene de la forma del latín ATRINA que también significa “negruzco/a”.

En algunos casos este arbusto espinoso puede ser salvaje “basa”. De ahí provienen todas las denominaciones que contienen el elemento *basa-* por delante o por detrás de *aran*: *basaahantze, adanbasati, y paxaran, patxaranondo, basokaran, basaelorriondo*. En Bizkaia encontraremos sustantivos que parten de la misma motivación pero que contienen el elemento *sasi-*: *sasiokaran*. Es de remarcar que no se han recopilado formas como **basaelorri* dando por sentado que el “elorra” es salvaje de por sí.

Que un arbusto sea salvaje (“basa”) nos da a entender que el fruto que ofrece no es de gran calidad, y menos si analizamos la denominación *txarriokaran*. Por lo contrario, en casos como *baxakan* o *basomakatz* (entendiendo que *makatz* hace referencia a la pera), lo que se nos transmite es que estos árboles permiten injertar otro de mejor calidad.

Por último también se han recogido las siguientes denominaciones: *txinbillosasi, okantximilloarbola, maldaan, txirriokeran* y *estraka*.